

EUSKAL OSASUN EREDUARI BURUZKO LABen ALTERNATIBA



2013ko ekaina

PREMIAZKO NEURRIAK OSASUNAREN SISTEMA PUBLIKOARI EUSTEKO

Gaur egun, zerbitzu publikoak murrizketa eta atzeraldi handiak jasaten ari diren honetan, eta geure osasun sistema garatu ahal izateko gaitasun politikorik eta arautzailerik izango ez dugun bitartean, hots, **burujabetza ekonomiko eta sozialik ez daukagun artean**, ezinbestekoa deritzagu osasun gaiari lotutako politika eraginkorrak zehaztea. Gobernuak osasun-gaiei loturiko murrizketak ezartzen dizkigute, egungo osasun-publikoaren sistemari zuzenean eraginez. Osasuna eta zerbitzu sanitarioak **ardura publikoa eta gizarteari dagokion eskubidea** dira.

“Alarma” egoera honetan, LAB sindikatuak beharrezkoa deritzo ondoren adieraziko ditugun 15 premiazko neurriak ezartzeari, sistema sanitarioaren suntsipena geraraz dezagun:

- **Behar bestekoa eta finalista den finantziarioa**, gutxienez, gure inguruko herrialdeen parekidea izango litzatekeena eta biztanleriaren osasun-premia aldakorren baitan areagotuko dena.

OSASUN PUBLIKORA BIDERATUTAKO GASTU PUBLIKOA

Iturria: MSC

	2010	2011
EAE	1.623	1.563
Nafarroa	1.543	1.528

Aurrekontu/capita: Europako batz bestekoaren azpitik.

OSASUN PUBLIKOAREN BALIABIDEAK

100.000 BIZTNLEKO OHE KOPURUA

Iturria: OCDE eta MSC

EB	570
Nafarroa	390
EAE	393

- **Osasun gastu pribatuaren murrizketa eta ezabapena:** azken hamarkadan kudeatzaile sanitarioek zerbitzuez arduratzen diren erakundeen jarduera laguntzaile gehienak privatizatu dituzte, horrez gain, zerbitzu publikoak enpresa-parametroen baitan erabili dituzte. Programa-kontratuen bitartez asistentzia sanitarioari prezioa jarritz, nahiz eta diru-publikoaz finantzatu, sanitate pribatuari zabaltzen zaio aukera. EAEn gehien erabiltzen den formula Antolamendu Sanitarioaren Legean jasotzen den kontzertu sanitarioarena dugu; eta Nafarroako Foru Erkidegoan, aurrekontuetako legeen bidez egin ohi da.
 - Gastu sanitario pribatuaren portzentajea handitu izan da, prestazio publikoak murriztu diren abiadura berean. Honek mesede egiten die osasun arloan

jarduten diren multinazionaleri, adibidez, milioi askotako mozkinak dituzten USP-ri edo QUIRON-eri EAE-n eta OPUS-i Nafarroako Unibertsitate Klinikari.

Hortaz, negozio pribatu-sanitarioaren eskuduntzak zerbitzu sanitarioen deskapitalizazioa eta osasungintzaren izaera unibertsala galtzea dakar berekin.

- **Negoiazio kolektiboa berreskuratu:** langileen lan baldintzen benetako negoiazioa. Azken urteotan, Osasunbideako zein Osakidetzako langileei etengabe murriztu dizkiete lan eskubideak (dekretuz lanaldia handitu, soldata murrizketa...), neurrigabe lana eginaraziz eta baliabideak murriztuz, nahiz eta jarduera handitu zaien. Honek asistentziaren kalitatea izugarri okertzea ekarri du. Enplegu publikoa defendatuko dugu eta enplegu publikoa sortzea, horretarako "enplegu publikoa sortzeko" dekalogoia sortu dugu.
- Osasun sistema osoa **euskaldundu** behar da, gure hizkuntza, osasun zerbitzuan, komunikazio-hizkuntza bihurtu arte, langileen arteko harremanetan nahiz eskatuko luketen erabiltzaileen sorospenean.
- Sistema publikoak **eskaintzen dituen zerbitzuak handitu** behar dira osasunaren oinarriko gaietan, adibidez, odontologian, medikuntza alternatiboan, errehabilitazioan, fisioterapian, etab.
- **Farmaziako gastua arrazionalizatu** behar da, farmaziako multinazionalen ikerkuntzan eta jarduera medikuan duten eragina mugatuz.
- **Botikak berriro ordaindu beharra ezabatu behar da.** Berrordainketak gaixotasunari zerga bat ezartzea suposatzen du, GUTXIEN DAUKANAK GEHIEN ORDAINTZEN DU. Berrordainketak farmazia gastua murrizten EZ duela baieztatzen dugu, hori gezur hutsa da. Orain, ezarri denarekin 417 botikak ez dira %100 finantziatzen. Horren ondorioz:
 - Botiken industriak irabaziak handitzen ditu.
 - Pentsionistak eta batez ere, egoera larrienean dauden pertsonetara eragiten die.
- **Baliabide teknikoak areagotu** (oheak, kirofanoak,...) behar dira beharren arabera. Itxaron-zerrendak benetan murriztu maila guztietan gehiago kontratatuz, zerbitzuak berrantolatuz, hauek optimizatuz eta teknologian inbertituz.
- **Lehen mailako arreta sustatu** behar da sistemak erabiltzaileengandik hurbilen dagoen zerbitzua izanik, eta osasun arloan, betetzen duen prebentziozko zeregina eta jarduera hezitzailea garatu behar da.
- **Pribatizazio prozesu guztiak lehengoratu behar dira**, sorospen sistemek osatzen duten esparru guztien integrazioari lagunduz. Bide batez, onartuko da hauen ekarpena azken emaitzari, alegia, kalitateko osasun arretari.
- **Herritarren partaidetza**, osasun arloko lehentasunak eta gizartean benetan txertatuak leudekeen programen garapena ezar daitezke. Horretarako, jendea dagozkion osasun gaietan eta euren bizitzaren kontrolari dagozkion gaietan erabaki ahal izatea erraztuko duten ekimenak garatuko dira.
- Osasun sisteman lan egiten duten **langileen partaidetza** erabaki daitezkeen estrategien garapenean.
- **Osasun alorra kudeatzeko kultura berria** ezarri behar da, zeina osasunaren

ikuskerak merkantilistatik aldentzeko den eta norbanako eta taldeko eskubideen sistema bermatzailea izango den.

- **Lanaren medikuntza osasunaren sistema publikoan sartu**, osasun sozialaren funtsezko elementu gisa.
- **Sexuaren, jatorriaren eta sorlekuaren arabera kultura-joera baztertzailerak ezabatu**, unibertsaltasuna benetan gauzatu.

BEREZKO OSASUN SISTEMAREN PREMIA

- Osasuna onarritzeko eskubidea da. Pertsona guztiok puntako ezagupen zientifikoetan oinarrituriko kalitateko asistentziarako eskubidea dugu. Osasuna ezin da izan merkantzia bat, non bere sarbidea egoera ekonomikoari zein pertsonen egoerari mugatuta dagoen.
- Jendarte eta herri bakoitzak eskubidea dauka bere osasun zerbitzua antolatzeko.
- Bizi dugun krisialdi egoeratik irteteko beharrezkoa irizten diogu, herri honen gehiengoarekin, lana egiteari, bi onarritzeko ardatzen gainean kokatuz: **eredu politiko eta sozialaren aldaketan eta** herri honetako herritar gisa dagokigun **erabakitze eskubidean**. Ez gaitzeko aldaketaz mintzatu, ez bagara erabakitze eskubideaz mintzatzen.
- LAB sindikatuaren aburuz, **osasunerako eskubideak lehentasuna izan behar du** Euskal Herriko **agenda politikoan**, ez daiteke mugatu adituen arteko eztabaidetara ez eta sektoreko profesionalen irizpideetara. Eskubide honen lorpena politika irmo eta eraginkorren bidez bakarrik ziurta daiteke, non baliabide guztien plangintza eta koordinazioa egiten utziko duten, eta bete behar dituen lehentasunak ezarriko dituen.
- Hiru bat milioi biztanle dituen herri honetan, bi estatuen kontrolpean dauden **hiru administrazio ditugu, hiru osasun sistema ditugu**. Alde batetik, **Frantziako estatuaren Secua dugu**, langileen ekarpenarekin finantzatzen den segurtatze publiko eta pribatuaz osatutako bitariko hornikuntza sistema zentralizatua duena; bestetik, **Osasunbidea eta Osakidetza** ditugu, erkidegoen Espainiako estatuak ezarri zuen Administrazioa desentralizatzearen emaitza dena eta erkidegoen aurrekontuen bidez finantzatzen diren osasun sistema-publiko gisa eratu zirenak.
- Azken hamarkadetan Euskal Herrian ezarri diren politika sanitarioek **ez dute alde nabarmenik izan**, eta nahiz eta hainbat kudeatzaile izan, irizpide neoliberal eta pribatizatzaile berei eutsi zaie.
- **Kalitateko, guztiontzat diren, doakoak eta euskaldunak diren zerbitzu publikoetan** inbertitzeari beharrezkoa deritzagu. Eredu sanitarioaz, urratsez urrats sortu behar dugun berezko eredu sanitarioaz eztabaidatzeari beharrezkoa deritzagu.

Ondoren zehaztuko ditugu proposatzen ari garen euskal eredu sanitarioak izan beharko lituzkeen ezaugarri nagusiak:

- Euskal eredu sanitarioarentzat proposatzen dugun **oinarritzeko irizpidea**, era

egoki eta bidezko batez, haren babes, sustapena eta osasun-zerbitzuen eskuragarritasuna bermatzean datza, gizarte-maila, diru-sartze maila, laneratzea, generoa, jatorria edo adina edozein direla ere.

- **LAB sindikatuaren irudikoz, eredu sanitarioa gizarte-ereduari lotesten zaio.** Egoera honen harira, gure sindikatuak babesten duen ereduak bermatuko ditu ekitate baldintzak, doakotasuna, zerbitzua euskalduna izatea eta biztanleria guztiarentzat izatea.
- **Aurrekontu publikoen bidez finantzatu behar da osoki.** Honen xedea, alde aurretik ezarri diren osasun helburuak ahal den hobekien gauza daitezen lortzean etzan behar du: alde batetik, ez du mugatu behar osasunerako eskubidea bermatzera bakarrik, gizarte-garapenerako, ekonomiaren eta norberaren garapenerako baliabide izatera baizik.
- Euskal osasun ereduak **beteko ditu** euskal biztanleriari **osasun-zerbitzuen prestazioarekin zerikusia duten zeregin oro** nahiz aipatu zerbitzuen erabilera. Gure osasun sistemak bere gain hartuko du, esparru publikoan, osasunaren zaintzaz arduratzen den langile oro; hauen eguneroko zeregina betetzeko behar den prestakuntza guztia emango da.
- Eredu sanitario honek **osasun publikoa lehenetsiko du prebentziozko medikuntzaren eta** biztanleria osoaren **osasun-heziketaren bitartez.**
- Eredu honek **deszentralizazioaren** alde egiten du, tokian tokiko politika sanitarioei (gizarte-errealitateari eta osasun premien gertuen dagoen erakundea izanik) erabakitze gaitasuna eta ebalua daitezkeen egitasmoak lantzeko gaitasuna ematen du.
- **Partaidetza demokratikoak** sistemaren ardatza eta sistemaren subjektu soziala izan behar du, funtsezko erabakiak hartzeko mekanismoak ezarriz, gero, ondoren, sistema sanitarioetara eraman daitezen.

Euskal eredu sanitarioaren gaiarekin bukatzeko, esan, hau ezin daitekeela gertakari isolatu suertatu Euskal Herriaren gizarte-garapen osoan, beste sistema batzuei estuki lotu behar zaie baizik: politikoari, fiskalari, hezkuntzari eta ekonomikoari, zerbitzu publiko guztietan politika koherenteak garatu ahal izan daitezen. Ezin dugu ahanz gizarte eta ingurumen sistemak eta osasun sistemak etengabe elkarri eragin diezaioten dagoen premia. Funtsezkoa deritzogu ere, jendarte beharrak eta osasunaren estaldura osatzeko gauza izan daitezkeen sistema sozio-sanitarioa garatzeari.